



ESPERIMENTUA: ZER MOTATAKO ESNEAREN ZURRUNBILOAK IRAUTEN DU GEHIEN?

Janari-koloratzailea gehitu zaien esne-mota batzuei xaboa botaz gero, esnea eta janari-koloratzailea zurrunbiloak egiten eta nahasten hasten dira, beren kasa. Edonola ere, erreakzio hori esne-mota batzuekin soilik gertatzen da. Asma al dezakezu zer motatako esnearen zurrunbiloak irauten duen gehien, ontziak garbitzeko xaboiarekin nahasita?

SAIATU ASMATZEN: Zer esne-motaren zurrunbiloak iraungo du gehien, zure ustez, janari-koloratzailearekin eta ontziak garbitzeko xaboiarekin nahasita?

MATERIALAK

- Zenbait motatako esnea (adibidez, gaingabetua, erdigaingabetua, osoa, almendra-esnea eta soja-esnea)
- Janari-koloratzailea
- Plater azalak
- Kotoi-zotzak
- Ontziak garbitzeko xaboa

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarra esne-mota dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Esne-mota bakoitzetik zenbat erabiliko duzu?
- Esperimentua martxan jartzeko, bota esnea plater azal batera, eta gehitu janari-koloratzaileen tanta batzuk (kolore bat baino gehiagokoak, koloretsuagoa izan dadin), plateraren erdialdean. Erreakzioa abiarazteko, hartu ontziak garbitzeko xaboitan sartuta egon den kotoi-zotz bat, eta ukitu platereko esnea, erdialdean.
- Janari-koloratzailearen zenbat tanta botako dituzu aldi bakoitzean?

DATUAK

- Nola neurtuko duzu esnearen erreakzioak aldi bakoitzean zenbat irauten duen?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

Bizitza errealean...

OSO ZAILA DA PLATERETAKO GANTZAK ETA OLIOAK GARBITZEA. GALDETU GURASOEI NOLA GARBITZEN DITUZTEN OLIOZ ZIKINDUTAKO ZARTAGINAK, ETA, SEGURU ASKO, ESANGO DIZUTE XABOIA ERABILTZEN DUTELA! XABOI-MOLEKULEK PUSKATU EGIN DITZAKETE GANTZ- ETA OLIO-MOLEKULAK. GANTZ ETA OLIOAK PUSKATZEAK ERRAZTU EGITEN DU OLIOZ ZIKINDUTAKO ZARTAGINAK GARBITZEA, ETA, GAINERA, ESNE-ERREAKZIOAN IKUS DEZAKEZUN KOLORE-NAHASTE POLIT HORI SORTZEN DU.

ARGIZKAK (5 URTE) ERRETILU BATEAN JARRI ZITUEN, KANTITATE BEREAN, ESNE OSOA, GAINGABETUA, ERDIGAINGABETUA ETA HARROTZEKO ESNEGAINA. IKUSI ZUEN ERREAKZIOARI LUZEENA ESNE OSOAK IZAN ZUELA, ETA, HAREN ATZETIK, ALDE HANDIRIK GABE, ERDIGAINGABETUAK.



MAILA AURRERATUA: Zer beste galdera dituzu esnari, janari-koloratzaileari eta xaboiari buruz? Diseinatu esperimendu bat galdera horri erantzuteko.